

1963-ko Apirillaren 5-ean, arratsaldeko iru t'erdietan, egin da Euskaltzaindiaren bilkura, Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian. Bilkura au izan da Martxoko 29-an egin etzanaren partez. Egun orretan mugaz andiko euskaltzaiñak Mathieu, Akitzeko Apezpiku jaunaren proguetara joan bear izan zuten, eta arrazoi orrengatik eta beroien erreguz, astebete atzeratu zan Martxoko bilkura au.

Etorri diran euskaltzaiñak, aukeratu dira: Dassance, Lekuona, Laffitte, Irigarai, Lojendio, Iratzeder, Haritschelhar, Gorostiaga, Larzabal, Epherre, Arrue eta Villasante. Mitxelena jaunak bere ezin etorria jakiñarazi du.

Urgazleak, berriz: Etxeandia, Irigoien, Aresti, San Martin, Artola, Arrutza eta Aita Zavala.

Maiburu, Dassance jauna izan da.

Oi dan otoitzarekin asi da batzarra.

Bizkaiko euskaltzaiñen utsuneak betetzeaz luze itzezin ondoren, erabaki au artu da: Urtarrillean egindako bilkuraren agiria ezeztatu egin da; Otsaillekoan, berriz, nola etzan naiko lagun batu, legezko batzarrik etzala egin erabaki da.

Eskabideak aurkeztu dira iru jaun auen alde; Alfonso Irigoien, Eusebio Erkiaga eta Aita Lino Akesolo karmeldarra, euskaltzain izendatu ditezen eskatuaz. Irigoien jaunaren izendapena erabaki aurretik zerbait zuritu bearra dagoela esan da, eta ala urrengo batzarrean erabakitzeke gelditu da. Erkiagaren eta Akesoloren aldeko eskabidea ontzat eman da, eta jaun oiek euskaltzain izendaturik gelditu dira.

Gero Dassance jaunak esan du lenbailen euskaltzainburu bat izendatu bear dala, eta bere aginte-epea edo muga 1963-ko bukaerara arte jarri ditekela. Danok ontzat eman dute iritzi au. Autarkietara jo da, eta ona emen botazioaren ondoreak:

Dassancek: Boto 1 izan du.

Arruek: Boto 1 izan du.

Mitxelenak: Boto 1 izan du.

Lojendiok: 9 boto izan ditu.

Lojendio jaunak adierazi du bera dala kargu ortarako meritu gutxiena daukana; baiña Euskaltzaindiak bere naia ain garbi agertu duen ezkerero, azkenean onartu du izendapena, ete beraz, euskaltzainburu egiñik gelditu da.

Gero Dassance jaunak dio Maiatzaren 18-an, Beloken, Iratzederren sarrera-itzaldia egingo dala, eta danok gaudela jai ortara gomituak. Meza nagusia amaika t'erdietan itango da. Urrun bizi diranak bezperan joan ditezke.

Eta beste gabe, oi dan otoitzarekin bukatu da batzarra.